



TXIKITXIKI!

2022ko urtarrila 205. zenbakia



HISTORIAURREA KONTATZEKO PREST

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK.....	11-12
IKASLEEKIN.....	4-5	LEHIAKETA.....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA.....	15
AITXITXA-AMAMEKIN..	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SUKAL-SALTSAN.....	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Maketazioa
Ana Aizpurua

Ikus-entzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Zer esaten dio dilista batek beste bati?

- Baina, zertan ari zara?
- Aizu! Ni ez naiz "baina", ni dilista naiz!



- Aita, aita! Joan naiteke zinemara?
- Bai, Jaimito.
- Bai?? Benetan aitatxo??
- Bai, joan zaitezke, baina sartu ez.

Baziren 5 txerri: Na, Ne, No eta Nu.
Nor falta da? Ni



- Zer egingo duzu gaur?
- Ezer ez.
- Baina, hori ez zenuen egin atzo?
- Bai, baina ez nuen bukatu...

Eskolara irakasle berri bat etorri da eta bere burua aurkezten du:

- Egun on, nire izena Luzea da.
- Eta Jaimitok erantzun:
- Lasai, badugu denbora-eta.



Txakur bat "Txiste" deitzen zen.
Txiste hil egin zen eta txistea bukatu zen.



Zer gustatu zaizue gehien historiaurreari buruz?



BIDEOA



La Salle Isasi ikastetxeek historiaurrearen inguruko lanketa sakona egin dute eta gurekin partekatu dute ikasitakoa. Oso ondo barneratu dute klasean emandakoa eta bikain mintzatu dira guzti horretaz. Adi egon, eurekin asko ikasi dezakezu eta!

PAULA ROBLES, 10 URTE



Historiaurreari buruz gehien gustatu zaidana Paleolitoa izan da. Paleolitoa orain dela 2.500.000 urte inguru hasi zen eta orain dela 10.000 urte inguru amaitu. Sasoi hartan bizi izan ziren gizakiak nomadak ziren, etxoletan bizi ziren eta ehizan egiten zuten janaria lortzeko. Sua izan zen Paleolitiko asmakizun handiena, baina suaz gain artea ere asmatu zuten.

JON LOPEZ DE VIÑASPRE, 9 URTE



Niri Metal Aroa gustatu zait gehien. Orain dela 9.000 urte hasi zen. Metal Aroko gizakiek metalezko gauzak ikasi zuten, hala nola armak, apaingarriak, lanabesak... Lehendabizi, kobrea erabili zuten, gero brontzea eta ondoren burdina. Metal asko zeuden inguruetan hiri txiki batzuk sortu ziren. Gero buruzagi bat aukeratzen zuten. Hiriak harrizko harrisiz inguratuta zeuden eta hirietan beste lanbide batzuk sortu ziren aro horretan: merkataria eta gerlariak. Metal Aroan hiru asmakizun garrantzitsu sortu ziren: gorpila, bela (itsasontzirako) eta goldea. Gainera, monumentuak egiten zituzten harri handiekin, monumentu megalitikoak: menhirrak, dolmenak eta cromlechak.



**JUNE TREVIÑO,
9 URTE**

Niri Neolitoa gustatu zait gehien. Orain dela 10.000 urte izan zen, gutxi gorabehera. Neolitoan animalientzako etxe batzuk zeuden eta ez zen haragirik edo esnerik falta. Hor sortu zen abeltzaintza. Gero, konturatu ziren landare baten hazia lurrera jausten zenean beste landare bat sortzen zela. Hor sortu zen nekazaritza. Lehen hiriak ibaien ondoan sortu ziren, ura edukitzeko. Hor esan daiteke gizakiak sedentario bihurtu zirela. Harrizko lanabesak gero eta landuagoak egiten hasi ziren. Gainera, bi asmakizun oso garrantzitsu egon ziren: zeramika (eskuekin buztina moldeatzea eta sutan egozte) eta ehungailua (animalien artilea ehuntzeko). Neolitoan pertsona bakoitzak lan bakarra zuen (nekazariak, abeltzainak, esku-langileak...).



**XABIER GIJON,
9 URTE**

Niri historiaurreko jantziak gustatu zaizkit gehien. Horregatik, egun batean historiaurreko pertsonak bezala jantzita etorri ginen gelara. Gainera, mural bat egin genuen eta gure eskuak margotu genituen bertan. Horrez gain, makilak, harriak, hostoak eta sua jarri genituen muralean, eta atzeko aldean zertarako erabiltzen ziren jarri genuen. Adibidez, makila sua egiteko erabiltzen zen eta hezurak tresnak egiteko.



**MARKEL LASUEN,
9 URTE**

Niri 'lapbooka' egitea gustatu zait gehien, historiaurreari buruzko gauza asko esaten dituelako. 'Lapbookaren' atzean 'Historiaurrea' jartzen du eta behean nire taldearen argazkia ikusi daiteke. Beste alde batean, kobazuloetako marrazkiak agertzen dira eta erdian talde-plana ikusi daiteke, eta beste aldean hezur batzuk daude eta bertan hezurrekin zer egiten zen azaltzen da. Barruan taldearen eskuen marrazkiak ikusi daitezke eta beste hiru irudi: Paleolitoa, Neolitoa eta Metal Aroa irudikatzen dituztenak.




**NADIA ZUBIATE,
9 URTE**

Niri talde-plana egitea gustatu zait gehien, bertan ondo egiten ari zarena zer den eta zertan hobetu behar duzun jartzen duzulako. Adibidez, taldean gauza batzuk ez badira ondo egiten edo hobetu beharra badago, ondo egiten saiatu behar zara. Bestetik, egin nahi duzuna idatzi behar duzu bertan (gehiago ikasi, taldean hobeto egon... adibidez). Horrez gain, taldearen lana baloratzeko beste toki bat ere badago. Bertan, gure balorazioa jartzeaz gain, taldekideek gure lana baloratzen dute. Azkenik, taldekide guztiek plana sinatu behar dute.



SAN ANDRES

Opor bueltako lehenengo egunak arintzeko eta euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin, Lehen Hezkuntzako ikasleek hainbat tailer egin dituzte: antzerkigintza, mahai-jolasak, txotxongiloak, sukaldaritza... Aurten, 5. eta 6. mailetako ikasleak txotxongiloekin aritu dira: istorioak asmatu, txotxongiloak eraiki eta, bukatzeko, antzezpen txikiak egin dituzte.



ARRATEKO ANDRA MARI



Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek Lupe Lekuona idazlearen bisita izan dute eta Munduko Ipuinen inguruan gozatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, gorputz-heziketako orduetan 6. mailako ikasleek aukera izan dute euren bizikleta erabiliz eta partekatuz aurretik prestatutako zirkuitoetan aritzeko, aditu baten gidaritzapean. Egun zoragarria izan zen eta primeran pasatu zuten!

URKIZU

Oporren aurretik Eibarko Ur Patzuergoko ardurduna etorri zen eskolara 3. eta 4. mailakoei uraren zikloaren eta ibilbidearen inguruan hitz egitera. Saio interesgarria izan zen eta bukaeran, gainera, poltsa bana oparitu zieten umeei. Sute-hustuketa simulakroa ere egin genuen eta 6. mailakoak Lekarotzera joan ziren, aspaldiko partes ingeleseko barretzera. Primeran ibili ziren! Amaitzeko, oporren ostean 5. mailakoek Urkiolako parke naturalera txangoa egin zuten.





LA SALLE

Hemen gaude berriro urteari ongietorria ematen. Gabonetako oporrak gustura disfrutatu ondoren, eta opariak estreinatu eta gero, betiko martxan hastea dagokigu, eta horretan gabilta. Txintxo-txintxo eta adi-adi ikasgelan. Gainera, proiektu berriak hasi ditugu eta gogor gabilta lanean. Amaitzeko, hil honen amaieran, LH 2. eta 3. mailako ikasleak Lur eta Amets pelikula ikustera joan ziren Coliseora.



AMAÑA



Aurten bai! Aukera izan dugu Egogaineko aiton-amonai Gabonetako kantak abesteko. Egoitzara ezin ginenez sartu, kanpoan abestu genizkien prestatu genituen kantak. 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak hurbildu ziren Egogain egoitzako kanpoaldera eta argazkian ikusten den bezala, aiton-amonak poz-pozik jarri ziren eta gustura egon ziren gure ikasleak entzuten. Ea urte amaieran berriro aukera dugun eurekin batera egoitza barruan abesteko.

ALDATZE

Amaitu dira Gabonetako oporrak eta gure 4. mailako ikasleak, etxean daudenak eta eskolara bueltatu direnak, euren irudimena askatzeko gogotsu etorri dira. Hemen gure musikariak! Pianoa jotzen aritu dira aste honetan, melodia desberdinak sortu eta horiei esker, barreak, emoziozko negarrak eta mota askotako sentimenduak bizitzeko aukera izan dute. Elkarrekin gozatzeko saio paregabea izan da!



J.A. MOGEL

Urtero bezala, opor aurretik Olentzeroren bisita izan genuen Iturburun. Garai honetarako ohikoa ez den eguraldi eguzkitsua eta epelarekin etorri zen eskolara gure ikazkina, eta bertan ikusi eta baieztatu zuen "txintxo-txintxo" ibili garela. Beti bezala, emozioz beteriko momentuak bizi izan genituen. Eskerririk asko Olentzero, zure bisita zoragarriarengatik, eta datorren urtean etorri berriro!





Mariangeles Espilla: **«Eibarrera etorri nintzenean oso euskera gutxi entzuten zen»**

Mariangeles Espilla eta Araia Lafuente amama-ilibak elkartu ditugu oraingoan. Pozarren agertu dira ... eta kitto!-ren egoitzan, eta pozik erantzun die Mariangelesekin Araia-aren galderari. Hemen duzue solasaldiak eman zuena.

Kaixo amama, nongoa zara?

Aulestikoa naiz, bertan jaio nintzen, baserri batean, eta bertan bizi izan nintzen ezkondu arte.

Eta noiz etorri zinen Eibarrera?

Aitxitxa eta biok ezkondu ginenean. Aitxitxa apopilo zegoen Eibarren, eta Alfan egiten zuen lan. Ezkondu eta gero erabaki genuen Eibarrera bizitzera etortzea. Amañan erosi genuen etxea eta gaur arte.

Etiket kanpo egiten zenuen lan?

Bai. Eibarrera etorri aurretik Aulestiko taberna batean sukaldari eta bertako denda txikian saltzaile. Eibarrera etorri nintzenean Iturburu ikastolan hasi nintzen lanean, hango jangelan.

Zelan igotzen zineten haraino?

Lehenengo kotxez eta handik pixkatera motor txiki bat erosi nuen eta motorrez igotzen nintzen Iturburura. Uda zein negu, bero zein hotz, argi zein ilun... Argi txiki bat zuen motorrak, eta ilun zegoenean errepidea ere ez nuen ikusten ia.



Zenbat urte egin zenituen Iturburuko jangelan?
Pila bat, 19 urte! Eta urte horietan guztietan ume pila bat pasatu dira “nire eskuetatik”, oso oroi-tzapen onak ditut.

Zer moduz jaten zuten umeek?

Denetik zegoen, orokorrean ondo, baina bazeuden txoritxo batek baino gutxiago jaten zutenak



ere. Horretarako geunden gu han. “Andri” deitzen ziguten.

Zein da garai hartatik gordetzen duzun oroitzapenik kuttunena?

Asko dira, baina bat aukeratzekotan iñauteriak aukeratuko nituzke. Oso ondo pasatzen genuen iñauterietako jaietan. Desfilea ere egiten genuen eta denak mozarrotzen ginen, ikasle, irakasle eta gainerako langileak. Behin, Guardia Zibil mozarroa utzi zidaten, eta momentu jakin batean trafikoa moztu nuen, desfilea Untzagara sar zedin. Kalean

"Motor txiki bat erosi nuen eta horrela igotzen nintzen Iturburura"

afaldu eta gero, etxerako bidean nindoala pare bat udaltzain gerturatu zitzaizkidan kontuak eskatzera. Azkenean barrezka amaitu genuen hirurok.

Umetan zelan konpontzen zineten Internet barik?

Ondo, gure Internet liburuak ziren. Behar genuen informazioa liburuetan aurkitzen genuen.

Eta zelan moldatzen zara gaur egungo teknologia berriekin?

Ilobak inguruan dabilzan bitartean ondo! (barreak)

Eibarrera etorri zinenean zerk eman zizun atentzinoa?

Batetik, zein gutxi hitz egiten zen euskaraz. Amañako dorreetan inork ez zekien, eta nik erderaz ez nekien... Dendara joaten nintzenean keinu bidez eskatzen nituen gauzak. Eskerrak bizilagun batek lagundu zidan... Eta, bestetik, eibartarren izaerak eman zidan atentzinoa. Eibarrera etorri nintzenean eibartarrak oso alaiak ziren, pozik bizi ziren, kalean ere giro ederra zegoen... Ondo bizi ziren seinale. Gaur egun hori asko aldatu da.



Amonaren goxua

Honako errezeta erraz honekin aho bete hortz utziko dituzue etxeokak. Izenak dioen bezala “gozoetan gozoena” dugu amonaren goxua. On egin!

OSAGAIK:

Pastel-krema

- 500 g esne
- 50 g azukre
- 40 g maizena
- 3 arrautza

Esnegaina

- 200 g esnegain
- 20 g azukre

Bizkotxoak (kaxakoa aukeran)

- 50 g bizkotxo
- 50 g ur
- 20 g azukre
- Kanela



NOLA EGIN:

- 1.- **Krema:** jarri esnea irakiten. Nahastu maizena, arrautzak eta azukrea, gehitu esnea pixkanaka, jarri sutan eta irakin 5 minutuz. Gorde.
- 2.- **Esnegaina:** harrotu esnegaina azukrearekin, eta gorde gerorako.
- 3.- Prestatu bizkotxoak oinarrirako, edo jarri kaxako bizkotxoak kanela eta azukredun esne epeletan.
- 4.- Jarri zerbitzatuko dugun edalontziaren oinarrian (oso ondo geratzen da buztinezko kazolatxoan) bizkotxo-kapa bat, gainean azukredun esnegain-kapa eta haren

gainetik pastel-kremarena. Bizkotxoak eta esnegainaren ordena alda dezakezue nahi izanez gero.

- 5.- Jarri azukrea gainetik eta erre, goxoki estiloan gera dadin.

* Hotza zerbitzatu.



TI-TA

ARRAUTZA GALDARRAZTATUAK BEXAMELAREKIN



Izenburuarekin ez beldurtu! Uste baino errazagoa da-eta. Arrautzak, ura, ozpina, gatza eta bexamela besterik ez duzue behar. Jarri ura irakiten ozpin eta gatz apur batekin. Bertan kraskatu arrautzak kontu handiz, eta eginak daudenean ontzitik atera. Arrautzen goringoa gogortu gabe egon behar da. Oskolik gabe gutxi egositako arrautza da arrautza galdarraztatua, zuringoa gogortuta duena, baina, goringoa ez. Egin bexamela eta bota arrautzen gainetik. Atondu egositako arrautza zatiekin edo arrautza birrinduarekin.



HIZKI-ZOPA


10 animalen izenak aurkitu.

K	O	T	S	O	A	B	S	K	K
O	A	H	O	B	G	U	A	U	R
U	A	T	S	B	G	L	F	H	O
N	O	H	U	E	I	E	S	L	K
T	I	O	A	A	B	H	A	D	O
X	T	X	A	K	U	R	R	A	D
I	X	L	E	H	O	I	A	P	I
A	T	I	G	R	E	A	X	T	L
P	A	R	R	A	Z	N	A	R	O
M	A	R	R	A	S	O	A	I	O

MATEMATIKA TRUKOA

BI DADO

Balaitz astmatzen dudan bi dadoren puntuak



Bi dadok bala

1. Puntuaziorik altuena aukeratze: 6

• 6.2 egin eta 1 gehitu $6+6+1=13$

• A tero den emaitza 5 aldiz egin $13 \cdot 5 = 13 + 13 + 13 + 13 + 13 = 65$

1. A tero den emaitza 2. dadoreen puntuak gero 6

• 6.2 egin eta 1 gehitu $6+6+1=13$

$13 \cdot 2 = 26$

Soluzioa: 1. puntuaziorik altuena aukeratze: 6



LABIRINTOA

HIZKI-ZOPA



Aukitu ezabatutako zenbakiak

1	3	2	5	6	8	7	9	4
2	■	3	4	■	6	5	■	9
■	2	■	4	■	5	■	9	■

7 DESBERDINTASUNAK





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **OTSAILAK 3** baino lehen
 ...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa RIKARDO, txapelduna!
 Aurreko aleko erantzunak bikain
 asmatu dituzu eta zozketan zeu
 irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta
 kitto!-ko kamiseta eta motxila
 zuretako! ZORIONAK!

**Tik, bakarrik, tak, ikarak** 6 urtetik aurrera

Bat-batean, gaixotu egin direla eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba. Bakar-bakarrik. Eta denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egingo zaie. Tik, bakarrik, tak, ikarak. Orduan, beldurrari aurre egiteko trikimailuak jarriko dituzte martxan. Eta zeu bakarrik geldituko bazina, zer egingo zenuke? Nola sentituko zinateke? Tik, bakarrik? Tak, ikarak?

**Ur eta Lur** 8 urtetik aurrera

Ausardiaz beterik, motxila lepoan hartu eta bere bizitzako ametsa egia bihurtzeko erabakia hartuko du Lur apoak. Bidean, Ur igela ezagutuko du, pertsonaia arraro bezain maitagarria, eta bien artean sortutako adiskidetasunari eta elkarlanari esker lortuko dute beren ametsak betetzea. Eta, zuk? Ba al daukazu ametsik?

**Orangutanak eta ni** 10 urtetik aurrera

Honako hau Karmele Llano euskal albaitariaren historia da, Karmelek berak kontatuta, Bilboko bere haurtzaroa, Albaitaritzako ikasle garaia eta euskal neska gazte bat planetako leku ezkutu honetan (Borneoko Oihana) bizitzera eta lan egitera eraman zuten arrazoiak kontatuko dizkigu. Gainera, orangutanak gertuagotik ezagutzeko aukera ere eskainiko digu egileak.

**BITXIKERIAK**

Begiek hankek baino kirol gehiago egiten dute. Begietako muskuluak 100.000 aldiz mugitzen dira egunean!



Gure gorputzeko atal guztiak dira garrantzitsuak, baina hatz txikia ere. Bat-batean kenduko baligute, gure eskuak bere indarraren % 50 galduko luke!

Gure gorputzean zer da azkarren hazten dena? Ez dira azazkalak, ez. Aurpegiko ileak gorputzeko beste edozein lekutakoak baino askoz azkarrago hazten dira.





Altxor bat

Baziren behin, antzina, bi ume; eskolako lagunak ziren eta gaupasa egin nahi zuten mendian. Futbolean jokatzen zeudela Iratik ostikada bat eman zion baloiari eta zuhaitz bati eman zion, baina bat-batean zuhaitza apurtu eta lurrera jausi zen. Denok zuhaitza ikustera joan ziren baina zaratarekin hartz bat erakarri zuten eta denok korrika hasi ziren herriraino.



Hurrengo egunean, plazan geratu ziren aurreko eguneko gertakizunari buruz hitz egiteko eta mendira berriro igotzea erabaki zuten ea zer zegoen zuhaitzaren barruan ikusteko. Heldu zirenean, zuhaitzaren barruan zer zegoen begiratzera joan ziren eta paper bat zegoen. Paperean mapa bat zegoen, eta Anek deskubritu egin nahi zuen. Zoritxarrez inork ez zuen nahi Anerekin mapa hori deskubritu; horregatik, bakarrik joango zela erabaki zuen Anek.

Egun bat pasatu zen eta Ane ez zen bere etxera bueltatu. Bere gurasoak eta lagunak oso atsekabetuta zeuden.

- Baina non egongo ote da Ane -esan zuen bere amak.

Ane lasai-lasai mendian zegoen eta hor pasatu zuen gaua. Oso pozik zebilen baina bat-batean harri bat lore formarekin ikusi zuen bere aurrean eta harriaren gainean jarri zuen eskua. Bat-batean kobazulo baten sarrera agertu zen eskumako aldean, Ane sartu egin zen baina gero ezin zen kobazulotik atera. Egun bat pasatu zen, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10garren egunean bere lagunak mendira joan ziren ea Ane ikusten zuten. Haiek ere harri hori lore formarekin topatu zuten eta Jonek eskua jarri zuen harriaren gainean. Aneri lagundu zioten kobazulotik irteten eta hortik aurrera dena ondo joan zen. Momentu hartatik aurrera leku hori itxita dago betirako.

Ala bazan ez bazan, sar dadila Untzaga plazan.

Julia Echeverria

ZU BAI MARGOLARI!

